# AUDIOA ETA SOINUAK GRABATU ETA EDITATZEKO PROGRAMA ETA GAILUA

# PROGRAMA Y DISPOSITIVO PARA GRABAR Y EDITAR AUDIO Y SONIDOS

41

| | |
|---|---|
| **DEFINIZIOA**<br>**Zer da?** | Audio-artxiboak sortu egin daitezke; alegia, artxibo batean gordetako ahotsa, musika edo soinuak graba daitezke. Halaber, editatu egin daitezke, haien zati bat moztu, soinuak nahastu, edo formatua alda dakieke.<br>Audio-artxiboak erreproduzitu, batu, moztu eta nahasteko, eta artxibo horiei efektu bereziak aplikatzeko programa espezifikoak daude.<br>Aditzera eman behar da soinu-artxiboek askotariko formatuak izan ditzaketela (wav, midi eta mp3, besteak beste). |
| **DEFINICIÓN**<br>**¿Qué es?** | Los archivos digitales de audio se pueden generar, es decir grabar voz, música o sonidos almacenados en un archivo. También se pueden editar, recortar una parte, mezclar sonidos, o modificar su formato.<br>Existen programas específicos para reproducir, unir, cortar, mezclar y aplicar efectos especiales a los archivos de audio.<br>Se debe destacar que dentro de los archivos de sonido, existen muchos formatos diferentes (wav, midi, mp3, entre otros) |
| **BALIABIDEAREN ERABILERA**<br>**Nola erabiltzen da?** | Soinu-artxiboak **grabatu eta entzuteko**, honako hauek behar dira:<br>• soinu-txartela duen ordenagailu bat edo gailu eramangarri bat [Info gehiago 15. fitxan].<br>• soinua grabatzeko programa bat. |

- mikrofono bat.
- soinu-erreproduzitzaile bat [Info gehiago 46. fitxan].
- bozgorailuak edo aurikularrak.

Oro har, ordenagailu guztiek dute soinu-txartela, 3 ataka dituena:

1. Estereo-sarrerako atakak: anplifikadorea, CD erreproduzitzailea edo telebistako audio-irteera konektatzea ahalbidetzen du.
2. Mikrofono-sarrerako ataka: txartelak ahotsa eta musika grabatzea ahalbidetzen du.
3. MIDI ataka: tresna elektroniko bat konektatzea eta sortzen duen musika grabatzea ahalbidetzen du.

Soinu-artxibo bat **grabatzeko urratsak** hauek dira:

- Mikrofono bat sartzea ordenagailuaren MIC sarreran eta ondo funtzionatzen duela kontrolatzea.
- Soinua grabatzeko programak eskuragarri dauden grabazio-kontrolak eskuratzea
- Artxiboa grabatu eta gordetzea, ondo identifikatzea ahalbidetzen duen izena emanda Formatua aukera daiteke. Grabazioak denek entzun ahal izango dituztela ziurtatzeko, ohiko formatuak erabiltzea iradokitzen da, hala nola .mp3 edo .wav formatuak.

Audioko **artxibo bat editatzeko**, aukeratuta programaren tutorialak kontsultatzea komeni da.

**Audio-formaturik** ohikoenak honako luzapen hauek dituzten artxiboek dituzte: .wav (kalitate handia, eta tamaina ere bai), .mp3 (erabilera-estandar bihurtu dira, bere kalitate eta edukiera handiagatik), eta midi artxiboak (berez ez dute soinua beren baitan; "partitura digitalaren" modukoak dira, eta, horregatik, oso leku gutxi hartzen dute diskoan). Era berean, audioa erreproduzitzen duten programen formatuak daude [Info gehiago 46. fitxan], hala nola Real Player-en –au eta Windows Media Player-en .wmv formatuak.
Ikus formatu gehiago hemen::http://desarrollomultimedia.es/articulos/tipos-de-formatos-o-archivos-de-

audio-y-codecs.html

**UTILIZACIÓN RECURSO**
**¿Cómo se usa?**

Para **grabar y escuchar** archivos de sonido es necesario contar con:

- un ordenador con tarjeta de sonido o un dispositivo portátil [Más info en ficha15].
- un programa de grabación de sonido.
- un micrófono.
- un reproductor de sonidos [Más info en ficha 46].
- altavoces o auriculares.

Los ordenadores por lo general todos disponen de una tarjeta de sonido que es la que proporcionan 3 puertos:

1. Puertos de entrada de estéreo: permite conectar un amplificador, un reproductor de CD o la salida de audio de un televisor.
2. Puerto de entrada de micrófono: permiten que la tarjeta grabe voz y música.
3. Puerto MIDI: permite conectar un instrumento electrónico y grabar la música que produce.

Los **pasos para grabar** un archivo de sonido son:

- Introducir un micrófono en la entrada de MIC del ordenador y controlar que funcione correctamente.
- Acceder a los controles de grabación disponibles en el programa de grabación de sonido
- Grabar y guardar el archivo con un nombre que lo identifique. Se puede elegir el formato. Para asegurar que todos puedan escuchar las grabaciones, se sugiere utilizar formatos comunes como. mp3 o wav.

Para **editar un archivo** de audio conviene consultar los tutoriales del programa elegido.

Los **formatos de audio** más comunes los encontramos en archivos con extensión .wav (alta calidad pero de gran tamaño, .mp3 (que se han convertido en el estándar de uso por su alta calidad y comprensión), los archivos midi (que en realidad no contienen el sonido en sí, sino que son una especie de "partitura digital", por ello ocupan muy poco espacio en disco). También existen formatos propios de los distintos programas reproductores de audio [Más info en Ficha 46] como .au de Real Player, o wmv de Windows Media Player.
Ver más formatos en :http://desarrollomultimedia.es/articulos/tipos-de-formatos-o-archivos-de-audio-y-codecs.html

## IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Audio-artxiboak sortu eta editatzea eskolako hainbat jarduera edo proiektutan erabil daiteke. Ordenagailu bat eta mikrofono bat edukita, gauza asko graba daitezke, ahots-mezu xume batetik hasita, podcast batera [Info gehiago 29. fitxan], edo audioliburu batera arte [Info gehiago 03. fitxan],. Podcasten kasuan, gehienetan beharrezkoa izaten da audioa editatzea. Halaber, sakelako telefono batez edo mp3 batez toki bateko biztanleen ahotsak edo naturako soinuak grabatu eta geoerreferentziatu egin daitezke [Info gehiago 29. fitxan]; horrez gain, ahozko hizkera graba daiteke —eguneroko egoeretan, talde-eztabaidetan zein mahai-inguruetan—, baita errezitazioak, antzerki irakurria, eskola-irratia eta ahozko apunteak ere besteak beste.

Audioak edo soinuak adierazpide arina ematen dio ikasleari; eta, horren bitartez, hizkuntza idatziaren bitartez adierazten askoz ere zailagoak diren konnotazioak transmiti daitezke. Bestalde, soinu-grabazioek kultura-aniztasunera ahozko hizkuntzarenak diren bereizgarriez hurbiltzea ahalbidetzen dute. Soinu-grabazioen bitartez sortutako mezu baten eta ahots-sintesiaren bitartez sortutako mezu berdinaren arteko konparazioak ikasleei beren ahotsaren bitartez ematen duten kultura- eta adierazpen-aberastasuna erakustea ahalbidetzen du.

## RECOMENDACIONES

La creación o edición de archivos de audio puede aplicarse a diferentes actividades o proyectos

**PARA EL AULA**

escolares. Con la disponibilidad de un ordenador y un micrófono es posible grabar desde un simple mensaje de voz hasta un podcast [Más info en ficha 29] o audiolibro [Más info en Ficha 03]. En el caso de los podcast en su mayoría es necesaria una edición del audio. También es posible grabar con un teléfono móvil o mp3 las voces de los habitantes de un lugar o sonidos de la naturaleza y georreferenciarlos [Más info en ficha 38], grabar el uso de la lengua oral en situaciones cotidianas, en discusiones grupales, en debates, además de recitaciones, teatro leído, radio escolar y apuntes orales, entre otros.

El audio o sonido aporta al alumno un medio de expresión muy ágil y capaz de transmitir connotaciones importantes que por medio del lenguaje escrito resultan mucho más laboriosas. Por otro lado, las grabaciones de sonidos permiten un acercamiento a la diversidad cultural con unas características específicas, propias del lenguaje verbal. La comparación entre un mensaje creado por medio de la grabación de sonidos y ese mismo mensaje creado mediante el uso de una síntesis de voz permite mostrar a los alumnos la riqueza cultural y expresiva que aportan con su voz.

**GOMENDATUTAKO GUNEAK**
**Non aurki dezaket?**

**Grabatzeko programak**

**Audacity**

http://audacity.sourceforge.net/?lang=es

Erabilera libreko programarik hedatuena da; soinu digitaleko artxiboak hainbat formatutan grabatu, editatu eta manipulatzea ahalbidetzen du. Banakako artxiboetan askotariko efektuak erantsita grabazio pertsonalak sortzeaz gain, hainbat soinu-formatutako (WAV, AIFF, AU, IRCAM, MP3 eta Ogg Vorbis barne) audio-artxiboak inporta ditzake. Oinarrizko edizio-komandoak onartzen ditu (ebaki, kopiatu, itsatsi, desegin), abestiak nahasten ditu eta anplitude-editore bat, espektrograma bat eta maiztasun-aztertzaile bat ditu inplementatuta.

**"Audacity" tutoriala**

http://www.youtube.com/watch?v=2wB_idjiW6Y

**Audioplay**.
http://www.espaciosinkro.com/labsono/audio_play/audioplay/
Laboratorio Sonoro–k garatutako aplikazioa; ikasleekiko komunikazioa hobetzea jomugan duen hezkuntza-proiektua da. Audioplay-k audio-artxibo bat inportatzea eta horren altuera eta abiadura denbora errealean eta modu independentean aldatzea ahalbidetzen du. Karaoke aukera ere badu, audio-artxibo batzuen ahotsaren bolumena murriztea ahalbidetzen duena; baita audio-grabazioko aukera ere. Ezinbestekoa da ordenagailuan Qicktime instalatuta edukitzea.

**Aplikazioaren bideoa**
http://www.proyectogrimm.net/index.php?cmd=cont_articulo&id=449
**Egileen webgunea; beste software bat, gomendioak eta ikasleentzako jarduerak ditu.**
http://www.laboratoriosonoro.es/

**Gorde eta partekatzeko web-zerbitzuak**

**Jamendo**
www.**jamendo**.com/es/
Jamendo musika-komunitate libre, legezko eta mugagabea da, Creative Commons lizentziez argitaratua.

**SITIOS RECOMENDADOS**
**¿Dónde lo encuentro?**

**Programas para grabar**
**Audacity**
http://audacity.sourceforge.net/?lang=es
Es el programa de uso libre más popular, que permite grabar, editar y manipular archivos de sonido digital en diversos formatos. Además de crear grabaciones personales a partir de archivos individuales, añadiendo múltiples efectos, puede importar archivos de audio en diferentes formatos de sonidos (incluyendo WAV, AIFF, AU, IRCAM, MP3 y Ogg Vorbis) Admite los comandos básicos de edición (cortar, copiar, pegar, deshacer), mezcla canciones, e incluye un editor de amplitud, un espectrograma y un

analizador de frecuencias implementados.

**Tutorial "Audacity"**
http://www.youtube.com/watch?v=2wB_idjiW6Y

**Audioplay**.
http://www.espaciosinkro.com/labsono/audio_play/audioplay/
Aplicación desarrollada por Laboratorio sonoro –un proyecto educativo que busca mejorar la comunicación con el alumnado. Audioplay permite importar un archivo de audio y modificar en tiempo real y de forma independiente su altura y su velocidad. Tiene una opción karaoke que permite reducir el volumen de la voz de algunos archivos de audio, y también la opción de grabación de audio. Es requisito tener instalado Quicktime en el ordenador.

**Vídeo de la aplicación**
http://www.proyectogrimm.net/index.php?cmd=cont_articulo&id=449
**Sitio web de los autores, con otro software, recomendaciones y actividades para alumnos.**
http://www.laboratoriosonoro.es/

**Servicios web para almacenar y compartir**

**Jamendo**
www.**jamendo**.com/es/
Jamendo es una comunidad de música libre, legal e ilimitada, publicada bajo licencias Creative Commons.